

Etxeetako lapurretak saihesteko segurtasun neurriak

Etxeetako lapurreten %40 udan izaten dira. Hori dela eta, udari begira, zenbait ardura hartu behar dira. Etxetik kanpo denbora laburrez egongo bagara ere, eskura ditugun segurtasun neurri guztiak erabili behar ditugu.



LEIOAKO UDALTZAINGOA
94 400 80 21

SOS DEIAK 112

Ettxera iristean atea edo leihoa zabalik badago, deitu Udaltzaingoari eta azaldu gertatutakoa. Ez sartu, eta itxaron Polizia heldu arte.

Lapurra etxe barruan badago, ez egin aurre. Garrantzitsua da oinarrizko xehetasunei erreparatzea (arropa, ezaugarri fisikoak, tatuajeak...), deskribapena Poliziari emateko eta, ondoren, balizko identifikazioa egiteko. Garrantzitsua da lapurrari aurre ez egitea, ezekin kasutan.

Oporren aurretik, ezezagunen aurrean ez esan noiz irten eta itzuliko zaren, ez eta bidaiaren gaineko beste ezer ere (erabiliko den ibilgailua, oporretarako aukeratutako lekua, etab.).

Agindu senide edo auzokoren bati heltzen zaizun posta hartzeko, ez zaudela nabaritu ez dadin.

Agindu senide edo auzokoren bari pertsonak zabaldu eta ixteko, etxean "bizia" dagoelako sentsazioa emateko. Era berean, programagailuak ere erabil ditzakezu, egongelako edo sukaldeko argiak piztu eta itzaltzeko, eta, horrela, efektu bera lortzeko.

Lorategia duten etxeetan, zuhaitz eta zuhaixketako adarrak inausita eduki, lapurrak ez daitezen ezkutatu edo sartu.

Ez utzi etxeko giltzarik lanpasaren azpian edo lore-ontzietan... ezkutatuta. Seguruagoa da kopia bat konfiantzako auzokoren bati edo senideren bati uztea, beharrezkotzat joz gero.

Itxi sarrerako atea giltzari buelta bat baino gehiago emanda, "txartelaren" metodoa erabilia ireki ahal izatea saihesteko.

Egiaztatu etxeko ate nagusiaren eta zoruaren artean ez dagoela tarterik, palanken erabilera saihesteko.

Ez utzi objektu baliotsurik (koadroak, bitxiak, eskulturak, etab.) denbora luzean jenderik bizi ez den etxeetan.

Konfiantzako pertsonaren bati esan non aurki zaitzaketen, beharrezkoa balitz.

Ez utzi oharririk atean, ez mezurik erantzungailu automatikoan, bertan ez zaudela esanez.

Garrantzitsua da oporretan ez doazen pertsonen auzokoen etxeetan, erkidegoetan edo urbanizazioetan izan daitezkeen mugimendu arraro edo zaraten berri ematea.

Ikuskatu postontzia, telefonotxoa edo etxeko atea, lapurrek zein etxetan lapurtu behar duten bereizteko egiten dituzten marken bila (lerro horizontalak edo bertikalak, esate baterako). Markaren bat badago, ezabatu edo egin ahal dena irakurtzeko modua izan ez dadin.

UDA HONETAN, SAIHESTU LAPURRETAK ZURE ETXEAN

